LAN-MERKATUAREN BALANTZEA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

Hirugarren Hiruhilekoa 2022

Erakunde autonomiaduna
EUSKO JAURLARITZA
ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

Organismo Autónomo del
GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES

Lanbide

Txosten honek, 2022ko hirugarren hiruhilekoan, Euskal Autonomia Erkidegoan lan-merkatuak izandako joera aztertzen du, aldagai nagusien analisiaren bitartez. Horretarako, lan-merkatuari zuzenki lotutako aldagaiez gain (erregistratutako langabezia, afiliazioa Gizarte Segurantzan eta kontratuen erregistroa), lan merkatuaren arloan biztanleria neurtzera bideratuta dauden estatistika operazio nagusiak hartu dira kontuan (Euskal Estatistika Erakundearen "Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkesta", BJA).

Edukia

Testuinguru Ekonomikoa 4
Lanbiden erregistratutako langabezia 5
Afiliazioa Gizarte Segurantzan 6
Kontratatutako pertsonak eta kontratuak 7
Okupazioa eta Langabezia, Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkestaren arabera (BJA) 8

Testuinguru Ekonomikoa

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Barne Produktu Gordinaren (BPG) igoera %3,9koa izan da hirugarren hiruhilekoan, 2022 urte osorako aurreikusten den hazkundea %4,3koa izanik.

Eustaten kontu ekonomikoen aurrerapenaren arabera, EAEko ekonomia %3,9 hazi zen 2022ko hirugarren hiruhilekoan, aurreko urteko aldi beraren aldean. Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren aurreikuspenei dagokienez, EAEko BPGa %4,3koa izango da 2022 urte osoari dagokionez eta 2023an hazkunde tasa %2,1ekoa izango da.

BPGaren bilakaerak adierazten du Euskadi moteltzeko fase batean dagoela urtearen hasieratik. Une horretan, hazkunde tasa %5,8 izan zen, eta bigarren hiruhilekoan %5,0raino leundu zen. Moteltzeko joera hori sektore guztietan gertatzen da, eskura dagoen koiunturako informaziotik ondorioztatzen denez. Inflazio handia, interes tasen igoera eta ziurgabetasuna dira erritmo galeraren arrazoi nagusiak. Herrialde garatuen multzoan ere gertatzen da hori.

Hiruhilekoen arteko terminoetan, EAEko ekonomiak %0,2ko hazkundea eskuratu zuen, aurreko aldietako gehikuntza tasetatik (%1 baino gehiago hazi baitzen) urrun.



Iturriak: Eustat, Ekonomia eta Ogasun saila: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza , "Koiuntura DI-DA batean 2022ko azaroa" txostena

Espainia eta Euroguneko ekonomiei dagokienez, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala, Consensus Forecast-ek Eurogunerako egindako BPG-aren urtez urteko aldakuntza tasaren aurreikuspena +%3,0ekoa da 2022 urterako, Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) Espainiarako urte berdinerako egindako aurreikuspena +%4,0koa izanik. 2023 urterako Eurogunerako eta Espainiarako egindako aurreikuspenak %0,0 eta +%2,0koak dira, hurrenez hurren.



Iturriak: EIN, Eurostat, NDF, Consensus Forecast, "Koiuntura DI-DA batean 2022ko azaroa" txostena

NDFk panorama iluna erakutsi du munduko ekonomiarentzat urrian egindako azken txostenean. Errusiaren inbasioak, energiaren eta elikagaien arazoekin; inflazioaren presio iraunkor eta zabalak (hamarkadetan ikusitako handiena baita) eragindako bizitzaren kostuaren igoerak; fenomeno horri aurre egiteko moneta politikaren gogortzeak; eta Txinaren moteltzeak, covid-aren agerraldiek oraindik ere garrantzi handia baitute, munduko hazkunde aurreikuspenak berriro beherantz berrikustea ekarri dute.

Lanbiden erregistratutako langabezia

Lanbiden erregistratutako langabe kopuruaren hiruhileko arteko bilakaera ia egonkor mantendu da: -222 gizonezko eta +260 emakume

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Lanbideko bulegoetan erregistratutako **langabe kopurua** ia egonkor mantendu da 2022ko hirugarren hiruhilekoan (+38 langabe); guztira erregistratutako langabe kopurua 111.680 pertsonakoa izan da, urte arteko jaitsiera % 6,5ekoa izanik.



Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Sexuari dagokionez, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Lanbiden erregistratutako langabe kopurua 222 pertsonatan jaitsi da gizonezkoen artean eta 260 pertsonatan igo emakumezkoen artean. Gizonezkoen kasuan, erregistratutako langabe kopurua 47.049 pertsonatan kokatu da eta 64.631 pertsonatan emakumezkoen kasuan.

Adinari dagokionez, langabetu kopuruaren jaitsierarik handiena, balore absolutuetan eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, 16-24 urte bitarteko segmentuan gertatu da (-399); ondoren, 45-54 urte bitartean (-241); 35-44 urte bitartean (-128) eta 55-64 urte bitartean (-49). 25-34 urte bitartean, ostera, langabetu kopurua 855 pertsonatan igo da.

Lurralde Historikoei dagokienez, balore erlatiboetan eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Gipuzkoan %0,2ko jaitsiera izan da langabetu kopuruan. Araban eta Bizkaian, ostera, %0,3 eta %0,1eko igoerak izan dira, hurrenez hurren.



Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Jatorriari dagokionez, balore erlatiboetan eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, langabetu atzerritarren kopurua %1,9 jaitsi da eta bertako langabetu kopurua %0,4 igo da. Lehenengo kasuan langabetu kopurua 17.827 pertsonatan kokatu da eta bigarren kasuan 93.853 pertsonatan.

Ikasketa-mailaren arabera, balore erlatiboetan eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, langabetu kopuruan jaitsiera handiena izan duen taldea oinarrizko ikasketak dituztenena izan da (-%1,8), jarraian Batxilergo ikasketak dituztenen taldea (-%1,3). Unibertsitate ikasketak eta Lanbide Heziketako ikasketak dituzten taldeetako langabetu kopurua %5,8 eta %2,8 igo da, hurrenez hurren.

Jarduera Ekonomikoari dagokionez, hiruhileko honetan, balore absolutuetan, aurreko hiruhilekoaren alderatuta, langabetu kopuruan jaitsiera handiena izan duten sektoreak hurrengoak izan dira: (i) Janari eta edarien zerbitzuak (-562); (ii) Nekazaritza, abeltzaintza (-291); eta (iii) Eraikuntza espezializatuko jarduerak (-273). Langabetu kopurua igo den jardueren artean, hurrengoak nabarmentzen dira: (i) Administrazio Publikoa eta Defentsa. Derrigorrezko Gizarte Segurantza (+721); (ii) Eraikinetarako zerbitzuak eta lorezaintzako jarduerak (+631); eta (iii) Enpleguarekin lotutako jarduerak (+615).

Afiliazioa Gizarte Segurantzan

Gizarte Segurantzako afiliatu kopurua 975.890 pertsonakoa izan da, aurreko hiruhilekoan baino %1,1 gutxiago

EAEn 2022ko hirugarren hiruhilekoan, Gizarte Segurantzako afiliatu kopurua 975.890 pertsonakoa izan da: aurreko hiruhilekoan baino %1,1 gutxiago eta aurreko urteko hiruhileko berdinean baino %1,8 gehiago.



Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa

Sexuari dagokionez, afiliatu kopurua egonkor mantendu da aztertutako azken bost hiruhilekoetan. Hurrengo taulan azaltzen den bezala, afiliatu kopuruaren % 53a gizonezkoak dira eta % 47a emakumezkoak (aurreko hiruhilekoan baino puntu bat gutxiago).



Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa

Lurralde Historikoei dagokienez, afiliazio kopuru handiena Bizkaian izan da (%50,0); jarraian Gipuzkoan (%33,4) eta Araban (%16,5). Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Bizkaian 5.902 pertsonatan jaitsi da afiliatu kopurua; Gipuzkoan -3.960 eta Araban -1.430.

Jarduera Ekonomikoen atalei dagokienez, hiruhilekoaren azken hileko batez besteko datuen arabera, hirugarren hiruhilekoan afiliatu gehien izan dituzten jarduera atalak hurrengoak izan dira: (i) Manufaktura industria (% 17,6); (ii) Handizkako eta txikizkako merkataritza, motozikleta eta ibilgailu motordunen konponketa (% 13,8); (iii) Osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak (% 11,5). 2022ko hirugarren hiruhileko datuak aurreko hiruhileko datuekin alderatuta, afiliatu kopuruan igoera izan duten jarduera atalen artean hurrengoak nabarmentzen dira: (i) Osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak (+1.462); Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza (+982); eta (iii) Administrazio-jarduerak eta zerbitzu lagungarriak (+562). Jaitsiera handiena jasan duten jardueren artean, ondorengoak nabarmentze dira: (i) Hezkuntza (-8.250); (ii) Arte, jolas eta entretenimendu jarduerak (-1.073); eta (iii) Administrazio Publikoa eta Defentsa. Derrigorrezko Gizarte Segurantza (-1.041).

Jatorriari dagokionez, hiruhilekoaren azken hileko batez besteko datuen arabera, Gizarte Segurantzara batu diren atzerritarren kopurua %2,9 hazi da aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, kopurua guztira 82.825 pertsonatan kokaturik. Afiliatu guztien artean, talde honen pisua %8,5ekoa da, afiliatu autoktonoena %91,5ekoa izanik. Atzerritarren artean, gizonezkoen afiliazioa %3,1 hazi da eta emakumezkoen afiliazioa +%2,5. Lurralde Historikoei dagokienez, atzerritarren afiliazioa %4,8 igo da Araban, +%3,0 Gipuzkoan eta +%2,1 Bizkaian.

Kontratatutako pertsonak eta kontratuak

Hirugarren hiruhilekoan kontraturen bat sinatu duen pertsona kopurua %4,4 hazi da eta sinatutako kontratu kopurua guztira 207.286koa izan da

2022ko hirugarren hiruhilekoan EAEn kontraturen bat sinatu duen **pertsona kopurua** guztira 126.372koa izan da, aurreko hiruhilekoan baino %4,4 gehiago. Sexuari dagokionez, emakumezkoen artean %6,8ko hazkundea izan da eta gizonezkoen artean %2,2koa.



Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Ikasketa-mailaren arabera, kontratatutako pertsonen %43,2k Derrigorrezko ikasketak ditu, %22,7k Batxilergo ikasketak, %18,3k Unibertsitate ikasketak eta %15,2ak Lanbide Heziketako ikasketak.

Adinari dagokionez, 2022ko hirugarren hiruhilekoan kontratatutako pertsona kopuruaren artean, 25-34 urte bitarteko pertsona taldea nabarmendu da, %26,7ko pisuarekin; 24 urtetik beherako taldeak jarraitzen dio (%25,1). Balore erlatiboetan eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, kontratatuko pertsona kopuruan bilakaerarik onena izan duten taldeak hurrengoak izan dira: 54 urtetik gorakoak (+%9,2) eta 24 urtetik beherakoak (+%8,9).

Jatorriari dagokionez, kontratatutako pertsonen %81,2a bertakoak dira eta %18,8k atzerriko nazionalitatea dute (aurreko hiruhileko datu berdina).Atzerritarren artean, jatorri hauek nabarmentzen dira: latinoamerikarra (%45,5), Europar erkidegokoak eta ez erkidegokoak (%17,3) eta Afrika iparraldekoak (%15,6).

Hirugarren hiruhilekoan **sinatutako kontratu kopurua**ri dagokionez, EAEn kokatutako lanpostua duten 207.286 kontratu erregistratu dira (kontratatutako pertsonak baino 1,6 aldiz gehiago). Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, %2,7 igo da sinatutako kontratu kopurua.



Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Lan - kontratu motaren arabera, joera berdinak jarraitzen du: sinatutako kontratuen %27,4 kontratu mugagabeak izan dira (aurreko hiruhilekoan baino 1,1 puntu gehiago) eta %72,6 aldi baterako kontratuak. Sinatutako kontratu guztietatik %34,3 kontratu partzialak izan dira (aurreko hiruhilekoan baino 2,1 puntu gutxiago).

Lurralde Historikoei dagokienez, balore erlatiboetan, Bizkaian kontratuak %0,3 murriztu dira, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta. Araban eta Gipuzkoan, ostera, sinatutako kontratuak %8,2 eta %4,0 igo dira, hurrenez hurren. Bizkaia izan da kontratu kopuru handiena izan duen lurraldea (%47,7; 98.804); jarraian, Gipuzkoa (%31,3; 64.962) eta Araba (%21,0; 43.520).

Jarduera Ekonomikoei dagokienez, hurrengoak izan dira kontratu kopuru gehien izan dituzten sektoreak: (i) manufaktura industria (%13,5); (ii) ostalaritza (%12,9); osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak (%11,9); eta merkataritza (%11,7). Gizonezkoen artean, gehien nabarmentzen den sektorea manufaktura industria da (%19,7) eta emakumezkoen artean osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak (%19,1).

Okupazioa eta Langabezia, Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkestaren arabera (BJA)

Langabezia tasa %7,9koa izan da eta enplegu tasa %51,8koa

Aztertutako hiruhilekoan, EAEko **enplegu tasa** %51,8koa izan da (%56,5 gizonezkoen kasuan eta %47,4 emakumezkoen kasuan). Landunen kopurua guztira 967.200ekoa izan da, aurreko hiruhilekoan baino 4.100 pertsona gehiago. Gizonezkoen kasuan, landunen kopurua 506.200ekoa izan da (aurreko hiruhilekoan baino %0,4 gehiago) eta 461.000ekoa emakumezkoen kasuan (aurreko hiruhilekoan baino %0,4 gehiago).

Adinari dagokionez, enplegu tasa handiena 25-44 urte bitarteko taldeari dagokio (%82,1), 404.200 landun. Bestalde, enplegu tasa txikiena 16-24 urte bitarteko taldeari dagokio (%24,3), 45.400 landun. Balore erlatiboetan eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, landun kopuruari dagokionez eboluziorik onena izan duen taldea 45 urte edo gehiago dituztenena izan da (+%0,8).

Lurralde Historikoei dagokienez, Gipuzkoa izan da enplegu tasarik handiena izan duena (%52,9), jarraian Araba (%52,0) eta Bizkaia (%51,0). Landun kopuruari dagokionez, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Araban %0,5eko jaitsiera erregistratu da. Bizkaian eta Gipuzkuan, ostera, bilakaera positiboa izan da (+%1,0 eta +%0,1, hurrenez hurren).

Jarduera Ekonomikoari dagokionez, Zerbitzuen sektorea izan da okupatu gehien izan duena (%72,9). Ondoren, Industria sektorea (%20,2), Eraikuntza sektorea (% 5,9) eta Lehen sektorea (%1,0).

Kontratu motari dagokionez, soldatapekoen %74,3k kontratu mugagabeak – finkoak izan dituzte EAEn eta %25,7k aldi baterako kontratuak. **Lanaldi mota**ri dagokionez, soldatapekoen %82,0k lanaldi osoko kontratuak izan dituzte eta %17,7k lanaldi partzialekoak.

Hirugarren hiruhilekoan, EAEko **langabezia tasa** %7,9koa izan da (%7,4 gizonezkoen artean eta %8,3 emakumezkoen artean). Langabetu kopurua 82.400 pertsonakoa izan da, aurreko hiruhilekoan baino 6.800 pertsona gutxiago (gizonezkoen kasuan %9,8 murriztu da langabetu kopurua eta emakumezkoen kasuan -%5,4).

Adinari dagokionez, langabezia tasarik baxuena 45 urte edo gehiagoko taldeari dagokio (%7,0); jarraian 25-44 urte bitarteko taldea (%7,1) eta 16-24 urte bitarteko taldea (%21,3). Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, balore erlatiboetan, 25-44 urte bitarteko taldean eta 45 urte edo gehiagoko taldean %13,6 eta %4,9ko murrizketak eman dira, hurrenez hurren, langabetu kopuruari dagokionez. 16-24 urte bitartekoen taldean %1,7 hazi da langabetu kopurua.

Lurralde Historikoei dagokienez, Gipuzkoan izan da langabezia tasarik baxuena (%6,9), jarraian Bizkaian (%8,3) eta Araban (%8,4). Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, balore erlatiboetan, Bizkaian %10,8 murriztu da langabetu kopurua, Araban -%8,3 eta Gipuzkoan -%0,4.

Ikasketa – mailaren arabera, langabetuen %45,3k bigarren mailako eta erdi-mailako ikasketak ditu, %29,0k oinarrizko ikasketak edo baxuagoak ditu, eta azkenik, %25,7k goi-mailako ikasketak ditu.

Jatorriari dagokionez, langabetuen %78,2 bertakoak dira, atzerritarrak, beraz, %21,8.